



JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA

31671 ARIBE (Navarra) - CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
jvaezkoa@infolocal.org
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2020ko abenduaren 4an, arratsaldeko ordu bat eta hogeita hamar minutuan, Aezkoako Batzarre Nagusiak, bilkura arrunta egin zuen, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

Eguneko gaiak:

BILDUTAKOAK

Batzarreburua: Karlos Bueno Reka

Batzarrekideak: Eseberri Colomo, Maddi - Galarza Larrayoz, Maria Carmen - Martínez Juango, Ainhoa - Merino Iriarte, Juan Esteban - Reta Trevejo, Leire - Santomá Vicens, Gonzalo jaun/andereak.

LEHENA.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA

Eragozpenik agertu ez denez, onetsita gelditu da 2020ko azaroaren 6an egindako bilkuraren akta.

BIGARRENA.- ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA KONTRATATZEKO BALDINTZA PLEGUA.

Aurkeztu da Aezkoako Batzarre Nagusiaren zerbitzura dagoen lanaldi erdiko administrari laguntzailearen lanpostua aldi baterako betetzeko deialdiaren oinarrien zirriborroa. Lanpostua hutsik gelditu da titularraren eszedentziagatik. Halaber, zehaztu dira sarbide baldintzak eta proben eta merezimenduen (hizkuntzak) puntuazioak, bai eta epaimahai kalifikatzailearen osaera ere. Nafarroako Administrazio Publikoan sartzeko Erregelamenduaren 42.1 eta 2-D artikuluetan xedatutakoaren arabera, aldi baterako langileak hautatzeko prozedurek ahalbideratu beharko dute ahalik eta arinen kontratatzea, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak horretarako igortzen duen zerrendan jasotako hautaprobek bidez eraturako izangaien zerrenden bidez egin ahal izanen dira, baldin eta lanposturako eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte eta proba bakoitzean lortutako puntuazioari jarraikiz. Batzarre Nagusiaren plantilla organikoan aurreikusitakoaren arabera, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea behar da, eta C1 gaitasunmailarekin bat datorren euskararen ezagutza egiaztatu behar da, ziurtagiri ofizialaren bidez edo izangaiak deialdian eskatutako hizkuntza maila duen zehazten duen proba gaituz.

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak hautaketa arautzen duten oinarriak onartu ditu, eta akta honi erantsita gelditu dira. Modu berean, erabaki du dagokion lan eskaintza publikoa aurkeztea Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, Agoizko bulegoan. Deialdia Batzarre Nagusiaren web-orri instituzionalean argitaratu da, eta abenduaren 30a ezarri da izena emateko azken eguna.

HIRUGARRENA.- BASO ENKANTEA 2020. 1/20 LOTEA EROSTEKO AURKEZTUTAKO ESKAINTZA

Jakinarazi da 2020ko Planari dagozkion hiru baso loteak saltzeko deitutako enkantean eskaintza bakarra aurkeztu dela, 3. loterako hain zuzen; eta, beraz, 1. eta 2. loteak berriz ere hutsik geratu direla. 3. loteari dagokion eskaintza ekitaldi publikoan irekiko da abenduaren 10ean, 12:00etan.

Maderas Tellechea del Salazar enpresak proposamen bat aurkeztu du Lantegi Antxos eta Mustakolarreko 1. lotea erosteko. Hasierako balorazioa hirurogeita hamalau mila zortziehun eta hirurogeita bost euro eta berrogeita hamazortzi zentimokoa da. Maderas Tellechea del Salazarrek erantsi duen eskaintza ekonomikoa 49.900,00 eurokoa da (berrogeita bederatzi mila eta bederatziehun euro), eta bi urteko egikaritze epea eskatu du. Beherapena, lizitazioaren hasierako prezioarekin aldaratuta, % 33,35ekoa da.

Batzarre Nagusiak oihan salmentari buruzko egungo egoera baloratu du, bai eta urtean zehar deitutako bi enkanteetan urteko espedienteari urriaren amaieran gehitu zitzaion pinu lotea aparteko aprobetxamendu gisa soilik saldu izana ere. Lehenengo enkantea egin ondoren, hainbat zur-egilerekin harremanetan jarri zen, pago loteak saltzeko aukera ezagutzeko, eta ez da aurreikusten eskaintzarik aurkeztuko denik.

Azaldutakoagatik, uste izan da Maderas Tellechea del Salazar enpresak aurkeztutako eskaintza egungo egoerara egokitzen dela, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 166.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hots, "*Azken enkantearen ondoren enkantea hutsik geratu bada eta, hala ere, toki entitateak eskaintza berri bat jasotzen bada, toki entitateak balorazio ekonomikoari buruzko txostena eskatuko dio Baso Administrazioari*", erabaki da Baso eta Ehiza Kudeaketako Zerbitzuari Maderas Tellechea enpresak aurkeztutako eskaintzaren balorazio ekonomikoa egin dezatela. Balorazio hori aldekoa bada, lotea eskainitako zenbatekoan esleitzea erabaki da.

LAUGARRENA.- BAZKA-LARREEN KUDEAKETA KONTRATATZEKO BALDINTZA PLEGUA.

Aztertu dira larreak kudeatzeko eta zerbitzu anitzen zerbitzuaren lizitazioa eta kontratuaren esleipena arautzen dituen baldintza tekniko zehatzen plegua. Unitate kudeatzaileak txostena egin du kontratuaren beharra, prestazioen balioa eta esleipen irizpideak (kalitate-prezio hobea) justifikatzeko. Kontratuak Nafarroako Gobernuaren finantzaketa du, Nafarroako Natura 2000 Sareko larre menditarren kudeaketa jasangarrirako 2020-2021 aldirako laguntzen deialdiaren bidez, 740002-74200-4609-456308 "LGENF 2014-2020 LGPa. Larre menditarrak "

Erabaki da hurrengo ekitaldietan ez dela fakturazioa hainbatean banatuko urtean zehar, baizik eta hilabete bakoitzean benetan egindako lanetara egokituko dela; horrela, kontratuaren guztizkoarekiko benetan gauzatu den proportzioari ez ezik, zeregin motari egokituko zaio (larreen kudeaketa, Nabalarena eta zerbitzu anitzak). Banaketa hori lizitatzaile guztiei emanen zaie, aldeztu aurretik jakin dezaten, eta ondorengo fakturazioa proportzionalki doitu beharko da.

Pleguak aztertu ondoren, Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak erabaki du zehaztutako zerbitzu kontratua esleitzeko tramitazioari ekitea; lizitazio hau prozedura sinplifikatuaren bidez izapidetuko da, kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Legearen 80. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuaren balioa gehienez ere bi urterako zenbatetsi ondoren, hasierako kontratuari gehi balizko luzapenari dagokiona. Kontratuaren balioa zehazteko, aurreko lizitazioetan indarrean zeuden prezioak eta aurreko bi urteetako KPIren aldaketak hartu dira erreferentziazat. Beraz, lizitazio-prezioa (BEZa kanpo) hogeita bederatzi mila eta zazpiehun eurokoa izanen da, lizitaziorako oinarri gisa erabiliko dena, eta kontratuaren gehieneko prezioa, luzapen guztiak barne (gehienez bi urteko), berrogeita hemeretzi mila eta laurehun eurokoa. Kontratua esleitzeko, gutxienez bost enpresa edo profesional gaituri eskatuko zaie eskaintza, eta gonbidapena bidaliko zaie. Gonbidapen horrekin batera, onartutako pleguak aurkeztuko dira, akta honi erantsita. Tramitazioa lizitazio elektronikoaren bidez eginen da, PLENA Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren bidez.

BOSGARRENA.- IRATIKO INFORMAZIO ZERBITZUKO EGUTEGIA ETA AURREKONTUA - 2021.

2021erako jaiegunen egutegia aztertu da, eta Arrazolako informazio guneko zerbitzurako hasierako proposamena egin da. Aurrikusitako zerbitzuaren funtzionamendu aldiak ohikoak dira, hots:

- Aste Santua: martxoaren 31tik apirilaren 6ra, biak barne.
- Maiatzeko zubiak: apirilaren 30etik maiatzaren 3ra eta maiatzaren 14tik 17ra
- Ekaineko asteburuetan (3 asteburu)
- Ekainaren 25etik 30era (bi zaindari)
- Uztailaren 1etik azaroaren 9ra
- Azaroko asteburuetan (3 asteburu)
- Abenduko zuba (abenduaren 1etik 10era)

Aldi bakoitzerako zehaztu dira langile bakoitzaren lanegunak, oporrak eta jai egunak.

Egutegi honetarako aurreikusitako gehieneko aurrekontua, errefortzuko langileen kontratazioa barne hartzen duena, honakoa da: lan-sariak, 60.848,09 €; eta, Gizartze Segurantzak, 21.615,83 €. Kopuru horietan sartzen dira ohiko langileen gastua, errefortzuko langileena eta egutegiaren arabera lan egin ahal den gehieneko jaiegunengatiko kostua.

Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak langileen ordezkariarekin bilera bat egitea erabaki du, bai bilkura honetan berrikusi diren datuak azaltzeko, bai zerbitzuak aurten izanen duen funtzionamenduari buruz hitz egiteko. Ondoren, egutegiaren berri emanen zaie aldizkako langile mugagabeei, legedian aurreikusitako aurrerapenarekin hurrengo urterako aurreikusitako opor egunak adieraz ditzaten, urtarrilaren amaieran egutegia erabat berrikusita egon dadin.

SEIGARRENA.- HAINBAT

1- Garraldako ikastetxeko jantokiari buruzko idatzia

Garraldako gurasoek aurkeztutako eskaera, garraioa erabiltzen ez duten ikasleentzako eskola jantokiaren kostu handia dela eta, Garraldako ikastetxe publikoko ikasleen familien egoera azaltzeko. Garraiatutako ikasleek eta premiak dituztenek 1,75 € pertsona/eguneko ordaintzen dituzte jantokiagatik. Garraldakoek, garraiatzen ez direnez, ordea, 7,74 € ordaindu behar dituzte, hau da, pertsonako 160 euro baino gehiago. Hiru haur dituen familia batentzat hilean ia 500 euro dira. Ikastetxean bertan egiten den janariaren garestitzea eta behar den zaintzaileen ratioa da gastu hori justifikatzeko eman dieten argudioa. Hiru aukera dituztela uste dute: eskatzen dietena ordaintzea, lan egiteari uztea –gehienetan, ama– edo herritik alde egitea, eta haien ustez bat ere ez da onargarria. Iaz, Garraldako Udalarri laguntza eskatu zioten, eta uko egin zion, zentroaren garbiketa guztia ordaindu behar dutela eta horrek gastu handia eragiten diola argudiatuz. Horregatik guztiagatik, Aezkoako Batzarre Nagusiari zuzentzen zaizkio, arazo hori aurrekontuetan txertatzerik duten azter dezan. Garraldako familientzako languntza handia izanen litzateke, bai ekonomikoki, bai sozialki. 1991ko Foru Lege zaharkitu batek lana eta familia uztartzea oztopatzen die, eta gurasoen arteko desberdintasuna sustatzen jarraitzen du.

Idatzi hori ikusita, jakinarazi da familiek eskaera bera berriro planteatu dutela Garraldako Udalean, eta han aztertzeke dutela. Batzarre Nagusiak ezin du gastu hori bere gain hartu, baina badago landu beharreko gune espezifiko bat: Pirinioetako Mahaiko Hezkuntza Taldea, non finantzazio lerro bat zehaztu dezaketen. Batzarre Nagusiak erabaki du eskaera hori Pirinioetako Mahaiari helaraztea, babestea eta gune horretatik arazoa konpontzeko lan egitea, uste baitu hezkuntzarekin zerikusia duen guztia bermatu eta positiboki konpondu behar dela, ikasleen artean desberdintasunik egon ez dadin.

2- Guraso Elkarteak eskola materialaz egindako eskaria.

Garraldako Ikasleen Gurasoen Elkarteak eskari bat helarazi die udalei eta Aezkoako Batzarre Nagusiari. Haren bidez, ikasle eta ikasgai bakoitzeko 20 euroko dirulaguntza eskatzen diote Batzarre Nagusiari, eskola materiala erosteko. Ikasturte honetako Aezkoako ikasleak, guztira, 59 dira; beraz, eskatutako zenbatekoa 10.180,00 € da.

Eskaera aztertu eta, jakinarazi denez, dagoeneko haraneko udal batzuetan ere aurkeztu da; baina ez da jakinarazi finantzatzea onartu duten ala ez; beraz, lehenik eta behin, udalek beren udalerrietako ikasleekiko duten inplikazioa ezagutu behar da. Nolanahi ere, Batzarre Nagusiak eskaera hori eta aurreko puntuan aipatutakoa Pirinioetako Mahaiko Hezkuntza Taldearen bidez bideratzea aztertuko du.

3- Orreaga Musika Eskola

Irakurri da eskolako zuzendaritzak eta eskolan dauden Aezkoako ikasleen gurasoek aurkeztutako idatzia, honakoa agertzen dutena:

"Orreaga Musika Eskolako guraso eta ordezkariok Batzarre Nagusiko kideengana jotzen dugu Aezkoako Batzarre Nagusia berriro patronatukide izateko eta, beraz, matrikulazioaren zati bat bere gain hartzeko eskaera

helarazteko. Eskakizuna Orreaga Musika Eskolan ikasten ari diren Aezkoako 30 ikasleen familienena eta eskolako zuzendaritza berarena da. Dakizuen moduan, Orreaga Musika Eskola Batzarre Nagusik honek berak sortu zuen 1980ko hamarkadan, eta geroago beste udal batzuk kidetzen joan ziren. 2012an Aezkoako Batzarre Nagusiak, diruz ez laguntzea erabaki eta patronatuko kide izateari utzi zion, gure gogoz kontra. Horren ondorioz, gora egin zuen familiek ordaindu beharreko zenbatekoa, eta desberdintasun handia sortu zuen gure eta beste haranetako ikasleen artean, Aezkoan erroldatutakoek bikoitza ordaindu behar baitute prestakuntza bera jasotzeagatik. Musika Eskola, gainera, Aezkoako biztanle aunitzek eskatutako trebakuntza zerbitzua da, zailtasunak zailtasun, mantentzen diren matrikulazio zenbakietatik ondoriozta daitekeenez. Hori dela eta, ez dugu ulertzen zergatik Aezkoako Batzarre Nagusiak hain laguntza urria ematen dion eskolari; izan ere, berak sortutako erakundea da, eta, gainera, orain ematen duen laguntzak ez du proportziorik beste haranetako udalek ematen duenarekin. Azkenik, nabarmendu nahi dugu musika hezkuntzak gure seme alabentzat duen garrantzia. Gure ustez, oso hezkuntza baliabide onuragarria da txikientzat. Halaber, Fanfarrearekin, kontzertuak, jaialdiak eta abar eginez, bailara ere egiten da, bertako jendea inplikazioa lortzen da eta gure herrietako bizitza aberasten da. Pozgarria izanen litzateke familientzat, Orreaga Musika Eskolako zuzendaritzarentzat eta ziur gaude Aezkoako Batzarre Nagusiarentzat, erakunde fundatzailea izan zen aldetik, bere garaian bultzatu zuen patronatuko kide izatea ".

Eskolako Zuzendaritzak ikasgai bakoitzeko ikasleen zerrenda eta matrikulen zenbatekoa helarazi dizkio Batzarre Nagusiari.

Aurkeztutako idazkia ikusita, gogorarazi da bere garaian Batzarre Nagusia izan zela Patronatuaren sustatzailea eta eskola finantzatu zuela ikasleen auzotasuna bereizi gabe, gainerako erakundeak gastuetan parte hartzen hasi ziren arte. 2011n, arrazoi ekonomiko larriengatik, Batzarre Nagusiak jakinarazi zuen ezin izanen zuela eskola finantzatzeko ohiko partida gaitu, eta patronatua utzi zuen. 2016an, laguntzak ematen hasi zen berriro, eta, ondoren, 2017an, kultura, kirola eta abarrekin lotutako mota guztietako laguntzak banatzeko araudia egitea erabaki zen. Araudi horretan, musika ikasketak ere aurrikusita daude, eta web-orrian berariazko sarbidea izan behar zuen, dirulaguntzen datu base nazionalean argitaratu aurretik. Webgune hau duela hilabete jarri zen martxan; beraz, orain arte ez da martxan egon. Une honetan, aurreikusitako laguntzak banatzeko prestatu zen araudiaren testua ordezkari guztien eskura jarri da, hurrengo ekitaldiko aurrekontuan horrelako jarduerak finantzatzeko, hala badagokio.

4- Saharar herriaren autodeterminazioari buruzko adierazpen instituzionala.

Azaroaren 11n, Marokok Nazio Batuen Erakundeak 1991n Marokoren eta Fronte Polisarioaren artean bultzatutako Su Etena hautsi zuen, Marokok eraikitako harresian irekitako arrakalaren aurrean agertzen ziren zibilen aurkako eraso batekin. Mendebaldeko Saharan azken egunetan jazotako gertaera larriak baino lehen, saharar ordezkariak gutun bat aurkeztu dio

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, eta toki erakundeei helaraztea eskatu zion, bai eta azaroaren 16an Nafarroako Parlamentuak hartutako adierazpen instituzionala ere.

Osoko Bilkurak adierazi du dagoeneko gai horri buruzko adierazpen instituzional bat egin zuela; eta, hala ere, oso-osorik izenpetu du Nafarroako Parlamentuak onetsitakoa, honako hau adierazten duena:

“1. Aezkoako Batzarre Nagusiak berresten du Saharako herriak autodeterminazio-eskubidea daukala, Nazio Batuek emandako ebazpenekin bat.

2. Aezkoako Batzarre Nagusiak gogorarazten du ezen Espainiak, Lurraldeko potentzia administratzaile gisa, orain de iure, bere gain hartu zuela Nazioarteko Komunitatearen aurrean "saharar populazioaren interesak babestea eta haren erakunde politikoak garatzea, Gobernu propioaren osotasunera eramateko".

3. Aezkoako Batzarre Nagusiak berretsi egiten ditu Saharako herriaren askatasunaren alde eta haren eskubide legitimoak berreskuratzearen alde onetsi diren adierazpen instituzional eta gainerako erabaki guztiak.

4. Aezkoako Batzarre Nagusiak gogorarazten du Marokok legez kanpo okupatzen duela Mendebaldeko Sahara, eta ez zaiola lurraldearen gaineko inolako subiranotasunik aitortzen.

5. Aezkoako Batzarre Nagusiak funtsezko deritzo Mendebaldeko Sahararen lurralde-batasuna eta nazioartean aitortuta dituen mugak errespetatzeari.

6. Aezkoako Batzarre Nagusiak uste osoa du Saharar Estatu Independente bat oreka- eta egonkortasun-faktorea dela erregioan.

7. Aezkoako Batzarre Nagusiak erabateko konbentzimendua dauka Mendebaldeko Saharako problemak bere horretan dirauela sahararrei beren askatasun eta autodeterminaziorako eskubide zilegiak ukatzen zaizkielako.

8. Aezkoako Batzarre Nagusiak gaitzetsi egiten du Marokoren eta Fronte Polisarioaren artean Nazio Batuen babesarekin adosturiko Mendebaldeko Saharako su-etena Marokok hautsi izana, eta sakon deitoratzen du saharar herriari inposaturiko gerra.

9. Aezkoako Batzarre Nagusiak Nazio Batuei eskatzen die bere erantzukizunaren arabera joka dezatela eta aplikatu ditzatela Mendebaldeko Saharari buruzko kasuko ebazpenak, zeinak Marokok etengabe urratzen baititu, men egiteari uko eginik.

10. Aezkoako Batzarre Nagusiak bipil sinesten du Mendebaldeko Sahararen arazorako soluzio egokiena Nazio Batuek 1991n taxaturiko irtenbide-plana zorrozki aplikatzean datzala. Plan hori Segurtasun Kontseiluak 690/S/RES/(1991) ebazpenaren bidez onetsia da, eta Marokok eta Fronte Polisarioak onartu zuten. Eta beharrezkoa da egun bat erabakitzea erreferenduma egiteko, hainbat aldiz Marokok ipinitako oztupoengatik atzeraturikoa.

11. Aezkoako Batzarre Nagusiak konpromisoa hartzen du Mendebaldeko Saharako egoera gertutik jarraitzeko”.

5- Euskara ikasteko dirulaguntzen ebazpena.

Jakinarazi da Batzarre Nagusiburuak 9/2020 Ebazpena eman zuela. Ebazpen horren bidez, Euskara Zerbitzuaren txosten teknikoa ikusi eta eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, 2019-2020 ikasturteko euskararen ikasketa trinko eta estentsiboetarako laguntzak ebatzi dira, guztira 2.010,50 €-ko egiten dutenak, bertan adierazitako zerrendaren arabera banatuta. Batzarre Nagusia jakinaren gainean gelditu da.

6- Acción contra el Hambrek egindako dirulaguntza eskaria.

Acción contra el Hambre erakundeak eskaera aurkeztu du. Bertan, pandemiaren nutrizio inpaktua gutxitzeko eta urritasuna pairatzen duten familiek premiazko elikagaiak eta higiene produktuak erosi ahal izateko txartel solidarioak emateko hartu dituzten lan ildoak azaldu zitu. Osoko Bilkurak erabaki du entitateri jakinaraztea Batzarrek Nagusiak urteak daramatzala gai horretarako ekarpenak egiten, Elikagaien Bankuaren bidez, erakundearen gastuen aurrekontuan lerro espezifikoko bat duela, eta, beraz, hura baliatuz lankidetzan jarraituko duela.

7- Txabolak

Haraneko txabolak erabiltzeko bi eskaera egin dira. Une honetan ez dago ezer erabilgarri, eta, Covid-a dela eta, datorren urtera arte ez dira ikuskatuko aurten inbertsioa justifikatu behar zuten txabolak, interesatuei jakinarazi zitzaizen moduan. Garmendia eta Santomá jaunak dira eskatzaileak. Hala ere, Batzarre Nagusiak txabola bat erabilgarri dagoenean Batzarre Nagusiaren beraren esku uzteko interesa du, langileek erabil dezaten, konponketak egiteko materiala bertan utzi ahal izateko. Ikuskapena egin ondoren, eta eskuragarri badaude, hurrengo esleipenentarako eskaeren hurrenkerari jarraituko zaio.

8- Ekitaldietarako egoitzak

Nafarroako Gobernuak Marketina eta Turismo Nazioartekotzeko Zerbitzuak informazioa eskatu du, kultura, lanbide eta abarren arloko ekitaldiak antolatzeke egoitzarik ote dagoen jakiteko. Haren asmoa da interesaturik egon daitezkeen arlo horretako entitateen esku jartzea, informazioa izan dezaten. Batzarre Nagusiak erabaki du Aezkoako Etxeko Batzarre Aretoa horretarako uztea, eta eskaerarekin batera igorritako galdetegia betetzea eta bidaltzea.

9- Azoka birtuala

Santomá jaunak jakinarazi du App bat garatu dela erosketak eta salmentak, produktu-trukeak eta abar egin nahi dituen bailarako jendea elkarren artean harremanetan jarri ahal izateko. Merkatu birtual gisa funtzionatuko du. Uste du Batzarre Nagusiak bere gain har zezakeela horren mantentze gastuak, herrikideentzako beste zerbitzu bat balitz bezala. Batzarre Nagusiaren web orri instituzional eta turistikoak mantentzeari dagozkion aurrekontuak aztertzeke daudenez, gai hori batera berrikusiko da.

Bestalde, jakinarazi da jauregiaren eraikineko aseguru kontratatzeke hiru aseguru erakunderi aurrekontua eskatu zaiela, eta, aurkezten diren unean,

aztertzeke bidaliko direla, lehen adierazitako webguneetako aurrekontuekin batera.

10- Bicimugi

Presidente jaunak jakinarazi du, Bicimugi proiektuaren hasierako aurreikuspenei dagokienez, aurrekontua murriztu egin dela. Batzarre Nagusiaren komunaleko pisten konponketentzako egokitutakoari eragiten dio, batez ere Munizioen Olatik Orreagarainoko tartekoari. Hasiera batean, aurreikusita zegoen pistako hainbat zati hormigoiztatzea, gehien hondatuta zeuden horiek hain zuzen, eta orain partida hori ez da aurreikusten. Arrazoi beragatik, ez litzateke berdina izanen Batzarre Nagusiak bere gain hartu zuen mantentze konpromisoa, eta, ondorioz, gaia birplanteatu behar da. Batzarre Nagusiak uste du Nasuvinsarekin hitz egin behar dela, aldaketa horrekin pozik ez dagoela eta Bicimugi proiektuaren barruan aurreikusitako azpiegituren hobekuntzak murriztu direla jakinarazteko. Osoko Bilkurak jarduera hori egitea erabaki du.

11- Munizio Olara eginen den bisita.

Jakinarazi da Nafarroako Gobernuko Ondare Historikoaren Atalak Munizio Olako aurrietan egin dituen lanak datorren abenduaren 10ean ikustera joateko asmoa dagoela. Honakoak joanen dira: Ondare zerbitzuko ordezkari bat, proiektua idatzi duen arkitektoa eta Batzarre Nagusiko beste ordezkari bat. Gehienez ere 12 pertsona izanen dira.

Ondoren, egindakoaren berri emanen zaio Batzarre Nagusiari.

ZAZPIGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEAK

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzeke gai gehiagorik ez dagoenez, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko 16:45ak zirela Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta nik, idazkariak, Egiaztatzen dut.